



Dámaso Casado
UGT

Colon de Larreategui, 46 bis
48011 Bilbao

Bilbao, 6 de septiembre de 2010

Estimado Secretario General:

Como sabes, ELA y LAB (con la mayoría sindical vasca) realizamos la huelga general el 29 de junio conscientes de la gravedad de las medidas que se están adoptando. Antes de esa fecha (el 21-5-09) las mismas organizaciones convocamos otra huelga general contra la decisión de gobiernos y la patronal de repercutir el coste de la crisis sobre los trabajadores y clases más desfavorecidas.

La realización de una huelga general requiere, en nuestra opinión, compartir algo más que su convocatoria. ELA y LAB entendemos que es imprescindible aclarar sobre qué bases se pretende hacer efectiva la unidad de acción entre las organizaciones sindicales. Eso, en el ámbito vasco, está por hacer.

Nuestras organizaciones vemos con suma preocupación la estrategia política de CCOO y UGT. A modo de ejemplo:

- Mediante el llamado “diálogo social” (en minoría en la CAPV) se da cobertura a las políticas de ajuste que tanto el Gobierno de Gasteiz como el de Iruña llevan adelante. El mantenimiento de mesas vacías de contenido real supone una grave desorientación. El poder político y económico desean, más en esta coyuntura, trasladar la imagen de “gestión compartida” de los ajustes, cuando es evidente que los mismos son decididos unilateralmente en beneficio exclusivo del capital. La convocatoria de una huelga general no se corresponde con la “normalidad” que se traslada desde en ese pretendido “diálogo social”. Por ello, esta cuestión, entre otras, determina la imposibilidad de compartir una acción sindical conjunta en tanto esta posición no sea revisada.
- Ambas organizaciones habéis aceptado-acordado con el gobierno de López la usurpación de la representatividad de ELA y LAB en aquellos órganos de participación institucional (CRL y CES) en los que hemos suspendido la presencia. Nos parece una decisión antidemocrática muy grave. El uso legítimo que cada organización sindical hace de su representación no puede ser penalizado políticamente y, mucho menos, que esa penalización sea avalada por el movimiento sindical. Asimismo en Navarra, con el gobierno de Sanz, permanece vigente el acuerdo de exclusión por el cual se nos impide la participación en numerosos órganos institucionales.

- Desde vuestra prioridad política al marco español de relaciones laborales, se está procediendo a hacer desaparecer cualquier realidad de regulación propia en el ámbito vasco. Este hecho se hace –en el ámbito de la CAPV– en contra de la opinión de la mayoría sindical.
- En la actualidad estáis negociando con la CEOE –con total opacidad– la reforma de la negociación colectiva. Para ELA y LAB la reforma laboral y la de negociación colectiva son materias inseparables. Pues bien, entre otros temas, se negocia con la patronal española la estructura de la negociación colectiva (los ámbitos) y los contenidos de negociación en cada ámbito. Por lo que conocemos de las propuestas que CCOO y UGT han remitido a la patronal, se pretende dejar sin capacidad de decisión a los trabajadores y trabajadoras de Hego Euskal Herria –entre otros– para que podamos elegir dónde y qué contenidos puedan a ser objeto de negociación. Un objetivo, el de consolidar un modelo centralizado y burocrático de negociación colectiva, que de consumarse afectaría a la esencia de ese derecho y, muy en negativo, a las condiciones de trabajo de los y las trabajadores vascos.
- Tampoco podemos obviar la resultante tan perjudicial que para los intereses de los trabajadores y trabajadoras han supuesto las sucesivas reformas (laborales, pensiones, etc.) realizadas al albur del diálogo social en el estado español.

Seguiremos trabajando porque la unidad sea posible en el futuro: sin maniobras de confusión, con definición clara y expresa de objetivos, con respeto a las reglas de juego entre organizaciones sindicales.

Sin otro particular, atentamente,



Ainhoa Etxaide
LAB



Adolfo Muñoz
ELA



Damaso Casado
UGT

Colon de Larreategui, 46 bis
48011 Bilbao

Bilbo, 2010eko irailaren 6a

Idazkari nagusi agurgarria,

Dakizunez ELAk eta LABek (euskal gehiengo sindikalarekin batera) joan den ekainaren 29an greba orokorra deitu genuen, hartzen ari diren erabaki larriak ikusita. Lehenago ere, 2009ko maiatzaren 21ean, beste greba orokor bat egin genuen, gobernuen erabakia salatzeke, hots, krisia langileei eta klase xeheei ordainarazi nahi zietela.

Greba orokor bat egiteko ez da nahikoa, gure ustez, deialdia bakarrik partekatzea. ELAren eta LABen iritziz, ezinbestekoa da erabakitzea sindikatuen arteko ekintza bateratua zeintzu oinarriren gainean eraiki nahi den. Hain zuzen, hori gaur arte euskal esparruan ez da egin.

Gure erakundeak zeharo kezkatzen ditu CCOOen eta UGTren estrategia politikoak; esaterako,

- “Elkarrizketa sozial” delakoarekin (EAEn minorian delarik) babestu egiten dira Gasteizko eta Iruñeko gobernuak ezartzen ari diren murrizte politikak. Mahai hutsalen inguruan eserita jarraitzea noraezean ibiltzea da. Botere politikoak eta ekonomikoak sinestarazi nahi dute, areago egoera honetan, murrizteko politikak “era partekatuan” kudeatzen direla; haatik, argi dago politika horiek soil-soilik kapitalaren eta enpresaburuen onerako gauzatzen direla, alde bakarreko erabakiz. Greba orokorreko deialdi bat ez da bateragarria “elkarrizketa sozial” horren bidez islatu nahi den “normaltasun” irudiarekin. Honek, besteak beste, ekintza sindikal bateratua partekatzea ezinezko egiten du, jarrera hori aldatu ezean.
- Bi sindikatuok Lopezen gobernuarekin batera erabaki-onartu duzue ELAren eta LABen ordezkarietza usurpatzea, parte hartzea etetea erabaki dugun organoetan (LHK eta EGAB). Hau erabaki antidemokratiko oso larria dela uste dugu. Erakunde sindikal bakoitzari dagokion eskubidea, bere ordezkarietza nola

erabili zilegi erabakitzea, ezin da politikoki zigortzerik onartu, eta are gutxiago ametitzen dugu mugimendu sindikalak hau ontzat ematea. Bestalde, Nafarroan, Sanzen gobernuarekin indarrean dirau gu baztertzeko akordioak: organo instituzional askotan parte hartzea galarazten digute.


- Zuen lehentasun politikoa lan-harremanen espainiar esparruan datza, eta lehentasun hortik abiatuta euskal esparruan arautzeko aukera oro desagerrarazten ari da. Hau EAE mailan gehiengo sindikalaren iritziaren aurka egiten da.
- Oraintxe bertan CEOErekin negoziazio kolektiboaren erreforma negoziatzen ari zarete, erabat ezkutuan. ELAren eta LABen ustez erreforma laborala eta negoziazio kolektiboarena erabat lotuta daude. Bada, besteak beste Espainiako patronalarekin negoziatzen ari zarete negoziazio kolektiboaren egitura (esparruak), baita esparru bakoitzean negoziatzekoak diren edukiak ere. CCOOek eta UGTk patronalari egindako proposamenen arabera, guk dakigunez, Hego Euskal Herriko langileei –beste batzuri bezala– erabakitzeke ahalmenik ez zaie utzi nahi, non eta zer negoziatu nahi duten. ELAren eta LABen iritziz negoziazio kolektibo eredu zentralizatu eta burokratizatu ardatz duen eredu hau gauzatzekotan, erabakitzeke eskubide hori kaltetuta geratuko litzateke, eta euskal beharginen lan-baldintzak zeharo okertuko lirateke.
- Ezin aipatu gabe utzi langileen interesei hainbesteko kaltea ekarri duten hurrenez-hurren egindako erreformak (laborala, pentsioena, etab.), Espainiako estatuan elkarriketa sozialaren babesean hitzartu direnak.

Lanean jarraituko dugu batasun hori etorkizunean egingarri izan dadin: nahasteko maniobrarik gabe, helburuak argi zehaztuta eta sindikatuen arteko joko-arauak errespetatzen direlarik.

Besterik gabe, adeitasunez,



Ainhoa Etxaide
LAB



Adolfo Muñoz
ELA